



ZUBI BAT EUSKARATIK 10 GAKO AUZOTZEKO

euskaltzaleen topagunea

Euskal Herrian ehun hizkuntzatik gorako aberastasuna dugu eta euskaltzaleen mugimenduak bere xedea (Euskal Herrian euskara erabiltzea **ohikoa eta eroso** izatea) lortzeko ezinbestekoa du hizkuntza aniztasunean aritzea. Hala, **euskararen biziberritze prozesua eta euskal jendarteko jatorri- hizkuntza aniztasun faktoreak elkar gurutzatzea** nahitaezkoa dugu.

Beraz, Euskaltzaleen Topaguneak Euskal Herrian bizi diren hizkuntza denak zaindu eta euskara denon kohesio hizkuntza izatearen alde lan egiten du. Ziur gaude Euskal Herrian **elkarbizitza hizkuntzatik ere eraiki** dezakegunaz eta, hortaz, elkarlanerako guneak sortzen jarduten dugu.

Aurrekoa esanik, Euskaltzaleen Topaguneak honakoan egiten du lan:

1. Harrera linguistikoa, ez formala eskaini

Euskaratik urrun bizi direnei harrera linguistiko ez formala eskaintzeaz arduratzen gara, herritarrak saretzen diren dimentsio sozial, kultural eta afektiboan.

2. Eskubide linguistikoak babestu

Eskubide linguistikoak herritarren berdintasun sozialerako oinarritzako dira. Horregatik, ezinbestekoa da horiek babestea.

3. Parte hartze sozialerako aukerak sortu

Elkarbizitza eta bizikidetzaz iparrorratz, euskara herritar ororen parte-hartze sozialerako tresna izatean sinesten dugu.

4. Euskararekiko atxikimendua sustatu

Euskal Herrian euskaraz bizi nahi duen jendea da Euskaltzaleen Mugimenduaren lanerako hazia.

5. Euskara ikasteko aukera berdintasuna bermatu

Euskara ikasi ahal izatea bertan bizi garen guztion eskubidea izan behar du: guztion eskura eta doakoa izan behar du.

6. Euskara, etorkizuneko hizkuntza bilakatu

Euskara etorkizuneko hizkuntza da. Funtzio berriak eskuratu ditu eta hori da aurrera begira jarraitu beharreko bidea.

7. Erabilera eta hizkuntza ohituretan eragin

Euskarak beharrezkoak ditu erabilera sustatzeko guneak eta uneak sortzea. Eta horretarako, beharrezkoa da herritarren hizkuntza ohituretan aldaketak eragitea.

8. Hizkuntzak eta euren arteko harremanak kudeatu

Euskara Euskal herrian beste hizkuntza ugarirekin bizi denez eta egoera gutxiagotuan dagoenez, beharrezkoa du euskara ardatz izango duen hizkuntza plangintza.

9. Ardurak partekatze aliantzak egin

Euskal herritar guztiona da euskara garatzeko ardura. Bakoitzak bere hartu behar ditugu eta horretarako ezinbestekoa da eragileen arteko elkar ezagutza eta elkarlana sustatzea.

10. Euskara eta aniztasunaren inguruko usteak deseraiki

Euskara eta aniztasunaren kontrako uste okerrak deseraiki behar ditugu, eta aukerak transmititzean eragin behar dugu erakunde moduan.